

IZENA EMATEKO ORIENTABIDEAK

Prozeduran izena emateko eskaera

1. Ebazpen hau EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira eskabideak.
2. Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek IV. ERANSKINEKO eredu ofiziala erabili beharko dute izen-ematea formalizatzen; web-orri honetatik deskarga daiteke eranskin hori: <https://ivac-eei.eus/eu/konpetenzien-aitorpena/> Eskabidearekin batera, historia pertsonala eta prestakuntzarena entregatu behar dira – vitaea prestatzeko Europako ereduaren arabera eginak–, eta 4. artikuluan adierazten den dokumentazioa ere bai. Ebazpenaren II. Eranskinean jasota dauden ikastetxe eta egoitzetan eman daiteke izena.
3. Eskabidean akats edo zehaztugabetasunen bat atzemanenez gero, hutsa edo ez-egitea zuzentzeko eskatuko zaio interesdunari. Hala egiten ez bada, interesdunak eskaeran atzera egin duela joko da, 39/2015 Legearen 21. artikuluan adierazitakoaren arabera ebazpena eman ondoren.
4. Baldintza guztiak ez betetzeak edo datu faltsuak emateak berekin ekarriko du prozeduran parte hartzeko eskubidea galtzea. Eskatzaileen erantzukizuna da aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatea. Dokumenturen bat egiazkoa ez bada, prozeduran parte hartzeko eskubidea bertan behera geldituko da, desadostasuna noiz aurkitu den gorabehera, eta ezertan eragotzi gabe hautagaiak izan lezakeen erantzukizuna.

Prozeduran izena emateko dokumentazioa

Izena emateko eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, betekizunak betetzen direla egiaztatzen:

1. Udal-eroldaren ziurtagiria, EAEko egoitza egiaztatzen duena.
2. NANaren edo AIZren fotokopia edo Europar Batasuneko herritartasunaren erregistroaren ziurtagiria (edo jatorrizko herrialdeko nortasun-agiria, edo indarrean dagoen pasaporte), edo Europar Batasuneko herritarraren senitartekoaren txartela, edo Espainian bizitzeko edo lan egiteko indarrean dagoen baimenaren titular izatea.
3. Egiaztapen bat, ebazpen honen 2.4 artikuluan ezarritako baldintzaren bat betetzen dela adierazten duena:
 - 3.1 Prestakuntza ez-formala alegatzen bada, hura justifikatzeko zenbait dokumentu aurkeztuko dira, eskatutako kompetentzia-ataletan prestakuntzako gutxienezko ordu-kopurua bete izana egiaztatuko dutenak; dokumentuotan honako hauek zehaztuko dira: prestakuntzaren edukiak eta orduak, zer erakundek eta noiz eman zuen eta adierazpen formal bat, baieztatzen duena prestakuntza gainditu dela edo ebaluazio positiboa edo aprobetxamendua lortu dela.

Prestakuntza ez-formal horrek lotuta behar du egiaztatu nahi diren kompetentzia-atalekin.

Prestakuntza ez-formalaren iraupena kreditutan adierazten bada, zehaztu beharko da zein den haren baliokidetasuna orduetan

- 3.2 Lan-esperientzia alegatzen bada, dokumentu hauek aurkeztuko dira:

3.2.1 Soldatuko langileen kasuan:

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren, Itsasoko Gizarte Institutuaren edo afiliatuta dauden mutualitatearen ziurtagiria, non adieraziko baitira enpresaren izena, lan-kategoria (kotizazio-taldea) eta kontratazio-aldia.
- Lan-esperientzia eskuratu duten enpresaren lan-kontratua edo ziurtagiria, non berariaz adieraziko baitira kontratuaren prestazio-aldien iraupena, egindako jarduera eta jarduera hori egiten emandako denbora.

3.2.2. Langile autonomoen edo norberaren konturako langileen kasuan:

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren edo Itsasoko Gizarte Institutuaren ziurtagiria, non adieraziko baitira enpresaren izena, lan-kategoria (kotizazio-taldea) eta kontratazio-aldia.
- Erantzukizunpeko adierazpena, non azalduko baita zer jarduera egin den eta zer denbora-tartean egin den.

3.2.3. Langile boluntarioen edo bekadunen kasuan:

- Laguntzen jardun den antolakundearen ziurtagiria, non datu hauek jasoko baitira berariaz: zer jarduera eta funtzio egin diren, zer urtetan eta zenbat ordu eskaini diren guztira (baremazio-helburuetarako, orduen kopurua zati zazpi egingo da egun kopurua kalkulatzeko)

3.3 Kasu guztietan, honako hauek deskribatzen dituen dokumentazioa erantsiko dira:

- a) Egindako jarduera, eta jarduera horrek eskatutako kompetentzia-ataletako batekin duen harremana.
- b) Noiztik noiz arte egin den jarduera hori.

Webgune honetan eskura daiteke ziurtagiri-eredua: <https://ivac-eei.eus/eu/kompetenzien-aitorpena/>

Baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak eta haien kopiak aurkeztu beharko dira.

4. Aurreko artikuluan adierazita dauden lan-esperientziaren edo prestakuntzaren baldintzak betetzen dituzten 25 urtetik gorako pertsonak ezin badituzte betekizun horiek egiaztatu artikulua honetan jasotako dokumentuen bidez, eska dezakete prozeduran izena ematea behin-behinekoz; horretarako, Zuzenbidean onartuta dagoen frogaren bat aurkeztu beharko dute, lan-esperientzia edo prestakuntzako ikaskuntza ez-formalak egiaztatzeko.

Onartzeko prozedura

1. Prozeduran parte hartu nahi duten pertsonak onartzeko edo baztertzeko, lehenik eskabideak aztertuko dira, eta, ondoren, baldintzak betetzen dituztenei jakinaraziko zaie prozeduran parte har dezaketela, eta pertsona horiek aholkularitza-fasera igaroko dira. Baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak, berriz, prozeduratik baztertuko dira, eta azalduko zaie zergatik ezin duten prozeduran parte hartu.
2. Aholkularitza eta ebaluazio faseak 1224/2009 Errege Dekretuan gai horri buruz xedatuta dagoenarekin bat etorriko dira.